

Covid-19aren eraginez 2020ko egitasmoan izan diren aldaketak

Bertso plazan izan duen eragina

Xenpelar Dokumentazio Zentroan biltzen ditugun datuen arabera, 2019an, 1.644 saio egin ziren Euskal Herrian: 1.215 bertsogintza ardatz zutenak, izan jaialdi, lagunarteko, plaza libreko zein txapelketa; eta gainerakoak, 400 ekitalditik gora, bereziak, esperimentalak, hitzaldiak edo saio didaktikoak izan ziren. Joan-etorri dezenterekin baina, oro har, saio kopurua mantendu egin ohi da.

Aurten, saioen gorakada txiki bat izan dugu urteko lehen bi hilabeteetan. Urtarrila eta otsaila ez dira hilabete "osoenak" izaten bertsolarien eta bertsozaleen agendatan, eta horregatik da pozgarria goranzko joera. Udaberriko hilabeteak are indartsuagoak izaten dira, udakoaren pareko, baina alarma egoerak bete-betean aldatu du panorama: martxoan 195 bat saio aurreikusten ziren, eta 53 gauzatu dira, eta apiriletik uztaile arteko plaza kopuruan ere jaitsiera nabarmena izan da, beheko taulan ikus daitekeen moduan. Honek guztiak ondorio ekonomiko nabarmenak utzi ditu: martxotik uztaile arte, 477.410 euro inguruko galerak.

| | 2019an antolatutako saioak | 2020an antolatutako saio bereziak: online... | 2020an antolatutako saio ordainduak edo ohiko moldekoak |
|----------------|-----------------------------------|---|--|
| Apirila | 122 | 20 | 5 |
| Maiatza | 162 | 17 | 23 |
| Ekaina | 179 | 5 | 34 |
| Uztaila | 133 | - | 48 |

Elkarreak eskuartean zituen zenbait egitasmo, bertan behera edo atzeratu

Elkartean egiten edo egitear zeuden proiektuetan berehalako eragina izan du, noski; eta epe luzera ere, 2020ko egitasmoa eta aurrekontua berrikusi behar izan ditugu.

- Bertan behera geratu direnak: Bertso Udalekuak eta barnetegiak; Haizea dator; Sakontze Bertso Eskola; Eskolatik Plazara; Plazara!; Bertso Eskolen

Egunak; Bertsulari Tfiki; Elebidunen ikasturte bukaerako Besta Eguna; Hernandorena Sariketa.

- Atzeratu direnak: Arabako Bertso Kuadrilla Artekoo; Bardook; Bizkaiko Txapelketako Udabarriko fasea; BBK Sariketa; Eskolartekoo; Pello Mari Otaño bekako deialdia (epea luzatu zaio); Udako Euskal Unibertsitateko Eskola.
- Egingarri diren ikusi behar (beste modu batean): Zenbait ikastetxetako ikasturte amaierako jaialdia; Bertsoa Bizi Gazte lehiaketa; Oholtzapetik; Ahalduntze Bertso Eskola; Gizonezkoen Bertso Eskola Feminista; UPV/EHUko Uda Ikastaroa.

Bizkaiko eta Euskal Herriko elkarteetako batzarrak alarma egoera ezarri zen asteburuan bertan egin behar genituen eta 2020ko uztailaren 11n eta 14n gauzatu dira, hurrenez-hurren.

Bestalde, Bertsozale Elkarteko funtzionamenduari buruzko parte-hartze prozesua egitera gindoazen. Lanketaren epeak atzeratu ditu egoera berriak, udazkenean helduko diogu, baina egokitze ariketa hauek guztiek etorkizunerako oinarriak fintzen ere lagundu digute.

Lanketa berriak Bertsozale Elkartean

Erresilientzia gaitasuna erakustera bultzatu gaitu krisiak.

Hezkuntzan baldintza berrietara azkar moldatzeko ahalegina egin dugu. Aurreko urteetan, www.bertsoikasgela.eus prestatzen egindako lana oso baliagarria izan da azken hilabetetan. Bertsozale Elkarteko irakasleek Internet bidez eskaini dituzte eskolak, eta modu honetan arituko dira ikasturtea amaitu arte.

Plazara begira, konfinamendu garaian bertsolaritza mugimenduko hainbat eragilek Interneteko online saiokak jarri dituzte martxan. Elkarteari dagokionez, lehendik ere bertsolaritzaren zabalkundean erreferentea den www.bertsoa.eus bertso plaza digitalak garrantzi handia izan du plaza birsortzerakoan.

Elkartetik epe luzeagorako erantzunak lantzen ahalegindu gara, bitarteko propioak erabiliz. Ordu luzetako lana eragin digu eta saiakera bera aberasgarria izan da, eztabaida gai berriei heltzera eramán gaituelako. Etorkizunean zer izango den garbi jakin gabe momentuko informazioarekin egin zaio aurre plazaren eteteari, eta deskonfinamenduaren baldintzak aldatu ahala berrikusiko ditugu etengabe hartutako erabakiak.

Momentuz, Bertsozale Elkartek **45.000 euro bideratu ditu plaza indartzeko** eta bertsolarien egoera zaugarria leuntzeko. Maiatzaren 2tik aurrera, Internet bidezko bertso plaza aberastu dugu, garai horretarako Lankuren bidez hitzartuta zeuden zenbait saio sarean eskainita, eta bertsolariek proposamen ordainduak izatea bermatuta. Esperimentaziorako tarteá izatea nahi genuen, gainera; guztiak Bertsoa.eus ataritik bideratu dira.

- Potokasta: bertsolari gazteei egindako elkarrizketak, entzutekoak. Sorkuntza jolas txikiekin gozatzeko aukera izan dugu astelehenero.
- Plaza: Lehendik lotuta zeuden eta mantendu nahi izan dutenei edo datozen hilabeteetan saioaren bat antolatu nahi duten antolatzailerei saioak online egiteko aukera eskaini die Bertsozale Elkartek. Lankutik saioak kontratatzen dituzten antolatzailerei eskaini zaie aukera, Amasa-Villabonako Subijana etxean prestatu zen grabaketa lekua, eta denborarekin herrietatik saioak egiteko aukera eskaini da, konfinamendu aginduen arabera beti ere. Saioak osorik eskaini dira www.bertsoa.eus atarian, zuzenean edo diferituan.
- Bidaiak: Inertziak hautsi eta esperiméntazio gunea izan da azken atala. Ekitaldi formatuetan eta gaitegian berritzaileak izan nahi duten saioak eskaini dira, molde ezberdinetakoak. Herrialde eta adin ezberdineko bertsolariei eman nahi die ahotsa Bertsozale Elkartek.
- Plaza berezia: bertso saioak udan herriko plazatan nola antolatu daitezkeen esperiméntatzeko eta ereduá sortzeko saioa gauzatu genuen Amasa-Villabonan ekainaren 5ean.
- Nafarroako Bertsozale Elkartek ere *Konfinamenduko bertso saioak* egitasmoa gauzatu du Nafarroako hainbat irratirekin elkarlanean.

- Bertsularien Lagunak Elkarreak, Euskal Irratiekin elkarlanean, bertso saioak (online, aurrez aurrekoak...) antolatu eta hedatu ditu.

Sorkuntza ordaindu eta kobratu egin behar dela sinetsita, maiatzaren 2tik zabaldu den eduki eskaintzaren bueltan bertsozaleen eta herritarren aportazioak jasotzeko kanalak zabaldu dira: telefonoan Bizum bidez eta kontu korrontearen bidez egin ahal izan dira aportazioak.

Egoerak aldakor samarra izaten jarraitzen duenez, neurriak berrikusten eta doitzen jarraituko dugu.

Amasa-Villabonan, 2020ko uztailaren 14an.

